# [Cast/Eusk] Zuek zarete birusa! alde hemendik!

OSPA! HERRI MUGIMENDUA :: 31/07/2020

Contra viento y marea, pero el “Caso Altsasu” no consiguió cumplir el objetivo de acabar con el movimiento antirrepresivo

**¡VOSOTR@S SOIS EL VIRUS! ¡QUE SE VAYAN!**

Contra viento y marea, pero el “Caso Altsasu” no consiguió cumplir el objetivo de acabar con el movimiento antirrepresivo, señal de lo imprescindible de defenderse de los ataques de las fuerzas de ocupación. Aun así, los Estados siguen con la suya. También este año, el hostigamiento y la criminalización siguen siendo su receta.

La semana pasa la Guardia Civil se pasó por las calles de Etxarri para interrogar a l@s mayores, jovenes, y niñ@s del pueblo sobre los carteles de OSPA! Eguna. Esa misma semana supimos que, como el año pasado, se había interpuesto una denuncia contra el OSPA! Eguna en la Audiencia Nacional, esta vez, la Union de Guardias Civiles. ¡Que sepáis que no nos vais a parar! Nuestra oferta es clara: Si las fuerzas represivas no quieren OSPA! Egunas, que se disuelvan y entreguen las armas. Mientras tanto, nos reafirmamos en seguir denunciando la represión y creando mecanismos para defendernos de ella.

Es claro ejemplo de ello que nos hayamos juntado hoy para presentar la novena edición de OSPA! Eguna. Hace dos años, y frente a toda criminalización, Altsasu se llenó para reivindicar la legitimidad y necesidad de la lucha antirrepresiva. El año pasado, pusimos encima de la mesa las miles de razones por las que ni queremos ni necesitamos a las fuerzas represivas, convirtiendo el OSPA! Eguna un ejercicio de memoria histórica.

Este OSPA! Eguna lo presentamos en un contexto marcado por la situación que se ha creado entorno al COVID-19. Una situación que no ha echo mas que acelerar la crisis económica que ya está pagando la clase trabajadora.

Nos han impuesto un estado de excepción que ha supuesto la desaparición práctica de los derechos políticos y civiles, tratándonos como autómatas que sólo sirven para producir. L@s que mas lo han sufrido han sido los sectores mas precarios de la clase trabajadora: L@s sin papeles, trabajador@s de las residencias, las mujeres que han vivido cautivas en casas con sus maltratadores, l@s trabajador@s sanitari@s trabajando con cada vez menos recursos, l@s limpiador@s, l@s sin contratos…

Pero en el poder están l@s de siempre, y como decíamos, la pandemia ha sido utilizada para una profundización de la ofensiva capitalista. Y como saben perfectamente que, para mantener sometid@s a aquell@s a l@s que se exprime cada vez mas, son imprescindibles mecanismos represivos mas sofisticados, han comenzado a tomar medidas para mejorar la eficiencia represiva: Reclamos para dar al Ejercito mayores competencias, aumento de la recompensa de las fuerzas represivas para que cumplan obedientemente su miserable función social…

El lavado de cara de las fuerzas represivas que se ha dado por parte de politic@s, medios de comunicación -o por el autobombo que se han dado las propias fuerzas represivas- solo se puede entender en este sentido. En el pueblo, tuvimos un claro ejemplo de ello cuando en mitad de los aplausos de cada día dieron un lamentable espectáculo en la explanada del Iortia. ¿De donde sacáis que os aplaudíamos a vosotr@s? ¿Porque deberíamos aplaudiros? ¿Por controlarnos? ¿Por multarnos? ¿Por amenazarnos en controles? ¿O por encarcelar a nuestr@s compañer@s y amig@s? ¿Por haber torturado? ¿O por asesinar? El año pasado os dijimos que no olvidamos, que tenemos memoria, que vivimos vuestra función social cada día.

Cuando desaparezcáis de Euskal Herria, ahí si, ahí aplaudiremos.

Porque tenemos claro lo que sois. Si la sociedad es un cuerpo, vosotr@s sois un virus que lo contagia. Y, si, estamos obligados a reconocer que cumplís una función social importante en este cuerpo enfermo. Tenéis la función de acabar con toda expresión combativa que busca convertir este cuerpo enfermo de capitalismo en un cuerpo saludable.

Pero nosotr@s tenemos claro que queremos ser parte de un cuerpo sano, y que para eso es imprescindible crear mecanismos que nos defiendan del virus represivo. Y hace tiempo que sabemos cuales son las vacunas para acabar con este virus: Organización y lucha.

Como cada año, repetimos que en un contexto de ofensiva capitalista es imprescindible reforzar el movimiento antirepresivo. Solidarizándonos ante la represión, protegiéndonos mutuamente, desobedeciendo las fuerzas represivas, construyendo autodefensa, tejiendo redes… Este OSPA! Eguna quiere ser también un día para reivindicar todo esto.

Como cada año, también venimos con propuestas para la semana anterior a OSPA! Eguna. El 22 de agosto con el Cross Popular Alde Hemendik o con charlas para reflexionar sobre diferentes caras de la represión los días 25 y 27. El propio OSPA! Eguna comenzará el mediodía del día 29 con la presentación del mural que harán diferentes cuadrillas del pueblo, para acabar con la kalejira a las 19:00.

El 29 de agosto estaremos en Altsasu a la espera de tod@s l@s que estamos contra el virus represivo. Jo ta ke!

**OSPA! Herri Mugimendua**

Oztopoak oztopo, Altsasuko auziak ez zuen lortu mugimendu antierrepresiboa itotzeko helburua, indar okupatzaileen erasoetatik defendatzeko behar ezinbestekoaren seinale. Ala ere, Estatuek bere horretan diraute. Aurten ere, OSPA!ren kontrako jazarpena eta kriminalizazioa da haien errezeta.

Aurreko astean Guardia Zibila Etxarriko kaleetan ibili zen OSPA! Egunaren kartelen inguruan galdeketak egiten herriko heldu, gazte zein haurrei. Aste berean jakin genuen Gaurdia Zibilen Batasunak OSPA! Egunaren aurkako salaketa jarri duela Auzitegi Nazionalean, aurreko urtean gertatu bezala. Jakin dezatela ez gaituztela geldituko! Argia da gure eskaintza: Inda errepresiboek OSPA! Egunik nahi ez badute, armak entregatu eta

disolbatu daitezela. Bitartean, errepresioa salatu eta honen aurrean elkar babesteko mekanismoak sortzeko hautuan berresten gara.

Honen zantzu argia dugu gaur 9. OSPA! Eguna aurkezteko bildu izana. Duela bi urteko OSPA! Egunean, jasotako kriminalizazio guztiaren aurrean borroka antierrepresiboaren zilegitasun eta beharrezkotasuna aldarrikatzeko bete zen Altsasu. Aurreko urtean, indar errepresiboak nahi eta behar ez izateko ditugun milaka arrazoiak mahaigaineratu genituen, OSPA! Eguna memoria historikorako eguna bilakatuz.

Aurtengo OSPA! Eguna, COVID-19ak ekarritako egoerak markatutako testuinguru batean aurkezten dugu. Egoerak jada langileriaren bizkar erortzen hasi den krisi ekonomikoaren etorrera azkartu du.

Eskubide politiko eta zibilen desagertze praktikoa ekarri duen salbuespen egoera ezarri digute, ekoizpenerako besterik balio ez duten automaten antzera tratatu gaituzte. Salbuespen egoeraren gordina langile klaseko sektore prekarioenek jasan dute: paperik gabekoek, erresidentzietako langileek, erasotzaileekin etxean gatibualdia bizi izan duten emakumeek, geroz eta baliabide gutxiagorekin lan egitera behartuta dauden osasun sistemako langileek, garbitzaileek, kontratu gabekoek…

Baina betikoek jarraitzen dute boterean, eta pandemiak, esan bezala, ofentsiba kapitalistaren sakontze baterako erabilia izan da. Ondo dakitenez geroz eta gehiago estutzen dituzun horiek menpean mantentzeko geroz eta errepresio mekanismo indartsuagoak behar direla, efizientzia errepresiboa hobetzeko neurriak hartzeari ekin diote: Armadari eskumen gehiago emateko eskaerak, indar errepresiboen ordainsaria handitzea haien funtzio sozial nazkagarria obedienteki bete dezaten…

Eta salbuespen egoera osoan zehar komunikabide, politikari edo indar errepresibo propioen aldetik eman den indar errepresiboen zuritze saiakera zentzu horretan besterik ezin daiteke ulertu. Horren adibide argia izan genuen herrian eguneroko txaloaldietan Iortia zabalgune erdian espektakulu penagarria eman zutenean. Nondik ateratzen duzue zuei egiten genizuela txalo? Zergatik egin behar dizuegu txalo? Gu kontrolatzeagatik? Gu isuntzeagatik? Kontroletan mehatxatzeagatik? Edota gure kide eta lagunak espetxeratzeagatik? Torturatu izanagatik txalo? Edo erailtzeagatik? Aurreko urtean esan genizuen ez dugula ahazten, memoria daukagula, egunero bizi dugula zuen funtzio soziala.

Zuek Euska Herritik alde egiten duzuenean egingo dugu guk txalo.

Argi dugulako zuek zer zareten. Gizartea gorputz bat bada, zuek gorputz hori kutsatzen duen birusa zarete. Eta bai, aitortu beharrean gaude, indar errepresiboek funtzio sozial garrantzitsua dute gorputz gaixo honetan. Kapitalismoak galbidera daraman gorputz hau organismo osasuntsu batean bilakatu nahi duten espresio borrokalariekin akabatzeko funtzioa dute birus errepresiboek.

Guk argi daukagu ordea gorputz osasuntsu baten parte izan nahi dugula, eta horretarako ezinbestekoa izango dela birus honetatik defendatzeko mekanismoak sortzen joatea. Aspalditik dakigu birus honekin akabatzeko beharrezkoak diren txertoak zeintzuk diren; Antolakuntza eta borroka.

Urtero bezala diogu: ofentsiba kapitalista berri baten testuinguruan mugimendu antierrepresiboa indartzeko garaia da. Errepresioaren aurrean elkartasuna adieraziz, elkar babestuz, indar errepresiboak desobedituz, zirikatuz, autodefentsa eraikiz, saretuz… Hau guztia aldarrikatzeko eguna izan nahi du aurtengo OSPA! Egunak ere.

Urtero bezala OSPA Eguna aurretiko asterako ere proposamenarekin gatoz. Abuztuaren 22an, Alde Hemendik Herri Krosarekin edota abuztuaren 25 eta 27an errepresioaren eragin ezberdinen inguruan hausnartzeko egingo diren hitzaldiekin. OSPA Eguna bera, abuztuaren 29aren eguerdian hasiko da koadrila ezberdinek osatuko duten muralaren mustutzearekin, ondoren 19:00tako kalejirarekin amaitzeko.

Abuztuaren 29an Altsasun birus errepresiboaren aurka dauden guztion zain izango gara. Jo ta ke!

---

*https://eh.lahaine.org/cast-eusk-zuek-zarete-birusa*